

## San Martin-Mitxelena

Gillermo Etxeberria

### 0.- Sarrera

Badira urteak, eta ez gutxi, EGAN literatur aldizkariak ale berezi bat eskaini ziola K. Mitxelena jaunari. 1987. urteko maiatza-abenduko alea, hain zuzen. Urte hartan bertan zendu zen Mitxelena jauna eta berari eskaini zion ale berezia Juan San Martin (1922-2005) jaunak, honako izenean: *K. Mitxelena. Gizona eta Hizkuntza*. Ordurako Juan San Martin aldizkari honen zuzendari zen.

Ale hari azal-ikuspegi bat eman eta berriro ere argitaratzeak merezi duela erabaki dugu *EGAN* aldizkaria egiten dugunok. Batetik, Mitxelena jauna modan dagoelako, modatik pasatzen ez den pertsonaia izan delako, eta, gerora ere, haren ildo ahaztezina izango delako. Ale hori da, irakurle, berrargitaratu duguna Juan San Martinek egindako sarrera eta guzti. Horregatik gure lerro labur hauek bi helburu dituzte beren baitan: bata Mitxeleneri gure oroitzapena eskaini, eta, bi, Juan San Martin zendu berriari gure omenaldia egin. Juan Martinen lan honen eta *EGAN* aldizkarian egindako lan guztien eskerrona izan nahi dute lerro hauek eta argitalpen honek.

Juan San Martin izan zuen Mitxelenak bidaide *EGAN* aldizkarian urte askotan. Aldizkari zaharrek esaten digutenez, Juan San Martin, 1983. urtea geroztik, Irigarai eta Arrue aldizkariaren sortzaileak hilda zeudenez, *EGAN*-en erredakzioan agertzen da Mitxelena jaunarekin batera. Bien izenak agertzen badira ere, daki-gunez, bera zen nagusiki aldizkariak arduratzen zena. Eta hala jarraitu zuen harik eta 1989. urtean Ararteko izendatu zuten arte. Ararte izendatze horrek eskatzen zion ardurak ez zion denborarik ematen *EGAN*en zuzendari izateko. Halere, bai kontseiluen

bidez, eta, batik bat, artikulua igorriaz etengabekoa izan zen Juan San Martinen presentzia aldizkari honetan.

Baina, askoz lehenagokoak dira bere artikulua. Lehenengoak 1960. urtean agertu ziren eta praktikoki azken alera arte, hau da, bera bizi zen artean eta idazteko gauza zen artean izan genuen bere kolaborazioa. Azken lana 2001ekoa da, eta ordurako bere lanetan ere aski utzia zegoen. Baina ordurako egina zuen bide luzea. Imanol Berriatuak zuzentzen zuen *Anaitasuna*-n eta Jokin Zaitegi-ren *Euzko Gogoan* argitaratu zituen kultur gaiei buruzko lehen artikulua 1950eko hamarkadaren hasieran. Baina kultura artikuluez gain, poemak ere plazaratu zituen, batez ere, *Euzko Gogoan* eta Xanti Onaindia karmeldarrak zuzentzen zuen *Olerti* aldizkarian. Ezaguna da berak erabilitako goitizenak, *Otsalar*. *Otsalar* erreferentzia garrantzitsua izan zen 1960ko hamarkadan euskal poesigintzan. 50eko hamarkadan bertan liburu bat ere argitaratu zuen Juan Antonio Mogelen bizitzari eta obrari buruz. Beraz, *EGAN 60ko* hamarkadan kolaboratzen hasi zenean, bide luzea urratua zuen.

Nolakoa lanak idatzi zituen? Esan daiteke denetarik idatzi zuela. Gauza jakina baita Juan San Martin entziklopedia bat zela eta edozer gauzaz, ia edozer gauzaz, esan dezagun, hitz egiteko gauza zela. Zer esanik ez euskal literaturaren gaineko autore eta gainerakoak. 1993. urtean, ordura arteko *EGAN* aldizkari artikulua guztien *Aurkibidea* osatu genuen. Bertan aipatzen diren San Martinen artikuluskak eta artikulua kontaezinak dira, eta denetariakoak, gainera.

Duela urte pare bat, Eibarko seme kuttun izendatu nahi zutela-eta, artikulua hauen guztien antologia bat prestatu genuen. Oier bere semearekin hitz egin ondoren, haren hainbat lan hautatu genuen. Antologia horrek *EGAN*-en argitaratutako artikuluekin egina izan behar zuen. Uste genuen liburu bat egiteko haina izango zuela, baina, hara gure sorpresa haren artikuluen bildumak mila bat orri bete zitzaizkela ikusi genuenean. Mila orri ez da gero ahuntzaren gauerdiko ezula. Nolabait jokatu behar eta, 200 aleko antologia egin genuen, berak idatzi bezala, beste pretentsiorik gabe eta bere baturanzko prozesua bere horretan

mantenduaz eta originalarekin fideltasuna gordez. Norbaitek esan zigun osatuago egin zitekeela, haren hainbat alor desberdin mailakatuaz, haren estiloaren zertzeladak emanaz, baina gure asmoa xumeagoa izan zen.

Beraz, edozeinek haren lanak ikusi, aztaku eta azter ditzake. Horretarako antologia hori ez du kaltetan izango.

Baina, Juan San Martin, iragan urtean, 2006.ean alegia, Eibarko seme kuttun izendatu zutenetik, haren ospea handi egin dela ziur gaude. Eta Juanitok, askoren ahotan, azterketa zabala goa eta sakonagoa behar du. Agian, bere lan guztien argitalpena ere ez litzateke bazterrean uzteko asmoa. *Eta kitto* aldizkarian, 2005eko ekainaren 3an kaleratutako artikuluan, zera diotso, alegia ez dela erraza Juanitori titulua ipintzea: arartekoa, mendizalea, hizkuntzalari, poeta, Ombudsmana, euskaltzaina, idazlea... Bere bizi oparoaren seinalea. Lerro hauek paratzean "Eibar.ORG" orriak izan ditut erreferentzia, besteak beste, eta hor agertzen da Juan San Martinen argitalpen nagusien zerrenda:

### Liburuak

- *Juan Antonio Mogel. Bere bizitza ta lanak*, Zarautz, 1959.(biografia)
- *Zirikadak*, Kuliska-Itxaropena, Zarautz, 1960. (narrazioa)
- *Eztenkadak*, Kuliska-Itxaropena,Zarautz, 1965. (narrazioa)
- *Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto* (Luis Peña Santiagorekin elkarlanean), Donostia, 1966. (saioa)
- *Escritores euskéricos*, Bilbo, 1968. (biografia)
- *Uhin berri*, GAK., Donostia, 1969. (antologia)
- *Hegatsez*, (Serafin Zubirirekin elkarlanean), Zarautz, 1971. (Artikulu Bilduma)
- *Elgueta con Anguiozar y Ubera*, Donostia, 1975. (saioa)
- *Gogoz*, GAK., Donostia, 1978. (SAIOA)
- *Literaturaren inguruan*, Donostia, 1980. (saioa)
- *Bidez*, GAK., Donostia, 1981. (SAIOA)
- *Erromanikoa Euskal Herrian*, Donostia, 1983. (saioa)

- *Landuz*, GAK., Donostia, 1983. (saioa)
- *Jose Manterola*, Donostia, 1985. (biografia)
- *Antzinako Eibar*, Eibarko Udala, Eibar, 1993. (kronika)
- *Dichos y hechos-Esanak eta eginak*, Gasteiz, 1994. (paremiologia)
- *Euskararen ostarreak*, Erein, Donostia, 1998. (Saioa)
- *Giza eskubideen inguruan*, Donostia, 2000. (Saioa)
- *Juan San Martinen artikuluen antologia*, EGAN, Donostia, 2005 (artikulu bilduma)
- *Giro gori*, EHU, 1998. (Poesia antologia)

### Liburu atalak

- "Euskeraren inguruan", *Euskal Elerti*, 69. (Saiakera) Bilbo-Donostia, 1969.
- "Euskal Artea", *Lur eta gizon*, Jakin, Oñati, 1974.
- "Eibar", *Diccionario enciclopédico del País Vasco*. X. tomoa, Donostia, 1979.
- "Aurkibidea (1920-1979). Egilez eta gaiez", *Euskera*. Bilbo, 1980.
- "Existe t-il un art basque?", *Ê Être basque*. Toulouse, 1983.
- "Existe un arte vasco?", *Ser vasco*. Bilbo, 1986.
- "Las artes del pueblo vasco", *Euskalerrria*. Barcelona, 1987.
- "El pintor Ignacio Zuloaga" *Los Zuloaga, dinastía de artistas vascos*. Donostia, 1988.
- "J.M. Iparragirre" in *Jose Maria Iparragirre. Erro-urratsak. Raíz y viento*. Bigarren liburukia 87-94 or., Keinu, Bilbo, 1999
- "Txillardegiren bibliografia", Azkue Biblioteka, 912
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) "Gabriel Arestik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak", 535-539 or. Bilbo, 1985.

Zerrenda honi, berak beste hainbat aldizkari eta egunkarietan idatzitakoak erantsi beharko litzaizkioke: *Hoja de Lunes*, EGAN, Eibarko Kirol Elkartearen buletina... eta berak egindako kolabo-

razio ugariak. Zer esanik ez berak itzuli zituen lan eta poesia ugariak: Bertolt Brecht, Salvador Espriu (1913-1985) etab. Gaztelaniaz idatzitakoak ahaztu gabe.

Nolako idazlea zen Juan San Martin, nolako poeta? Uste dut oraindik bere ezaugarri nagusiak, berari buruzko kritikak, izango duela zeregina arlo honetan. Nik irakurri ditudan kritiken artean, duela ez asko zoritxarrez galdu dugun Andolin Eguzkitzarena aukeratu dut, bertan nolabait gauzatzen baita hari buruzko kritika. Bitez Andolinen lerro hauek harren oroitzapenez eginak. Andolin, Juan San Martinen *Giro Gori* liburuari buruz ari da. Oso eskertzekotzat jotzen du Euskal Herriko Unibertsitateak ateratzen duen *Gaur Egungo Poesia* izena daukan bilduma elebiduna "gure belaunaldikoentzat eta are gehiago gazteagoak diren irakurleentzat, hain ezaguna ez zaigun Otsalar olerkariaren lanak berrargitaratzea". Liburu horretan 81 poema ikus daitezke "ezelan ere makaltzat ezin jo daitekeen obra eta gure arteko hainbat olerkarik oraindik ere gainditu ez dutela, eta halaz eere orain arte hain ahantzia egon dela"

Ondoren, Andolinek liburuko poemei buruz dihardu: " Oso da interesgarria Otsalarren poemak begiratzea, ederto ikusten delako denok dakiguna, gurasoen seme-alabok garela, eta San Martinen olerkaritza irakurtzean argi eta garbi ikusten da gerraurreko olerkariak dauzkala buruan, Lizardi, Lauaxeta eta enparauak, baina Arestik iraultza eginen duelarik, berak ere herri-literaturaren elementu, molde eta erak sartzen dituela barra-barra bere lanetan. Izan ere, bilduman agertzen diren poema ederrenetariko batzuk herri-moldean onduriko batzuk dira, hara nola Euskaldun bizi nahia (1963) horretako ondoko ahapaldia: *Oinaz ta Ganboarren gorroto legean/ guziok hemen gabiltz auzitza tristian;/ kezka baten anaiak izan beharrean, / buruz jokatz denok ideia batean,/garaiz oroiturikan sorterrri maitean.*

Gaien ikuspegitik era garaikoetan aritzen da San Martin, existentzialismoa alde batetik, aurreko horretan bezala herrimina, eta olerkaritzaren betiereko gaiak, natura eta amodioa, bestetik. Hizkuntzaren moldeetan jartzen badugu begirada baina, kronologikoki dagokion tokia hartu, eta gure literaturaren historian katanbegi bat osatzen lagundu zuela argi eta garbi dago; hasi erabat lizarditarra den hizkuntza, hiztegi aberats, baina gramatikalki

oraino elbarritua ematen duenaz baita, hizkuntza herritar gozo eta adierazkorra sartzen duelako gero, azkenez gure oraingo poesia eta prosaren oinarri den hizkera fresko eta zalua erabiltzeko: *Maitatzeko arrazoiak / galdu ziren munduan, / gizonak uztarpeturik / beti sufrimenduan.*"

Lerro hauei bukaera emateko jar dezadan Juan San Martinen poesia bat: "Mundu zabalera begira" (1968)

Ni, niregandik  
gure herriarekin,  
mundu zabalera.  
Munduaren izate orokorrean,  
gizonei zein herriei,  
bizi beharra  
uka ezinezko zaie.

Nik ez dut aurkitzen  
munduan aldatza besterik.  
Aldatza eta aldatza,  
Itxaropenik ez dakarren  
mendiko sermoian.  
Aldatz latza eta  
garratza nekean,  
aldatzen ez diren aldatzak  
hiletazorian.

Bidez nekaturik nator,  
gizonek sufritu duten  
herrialde baten bide malkartsuetatik.  
Gogo-garra hiltzorian duen

lurraldetik eta  
besteoi anaikiro eskua luzatuz  
estutu nahirik,  
zuon gogoaren eskua...

Gauera nekaturik heltzen naizenean,  
atsedenaren bila,  
deskantsurik gabe entzuten dut  
besteon zuzmura:  
Ez nago lokaturik, ez dut loak hartzerik,  
ez dut behar... nire zoria  
bestek erabakitzen duten artean,  
ez dut behar... nire zoria  
gizonon zoria.

Aurpegi nekatu asko nire inguruan.  
Izerdi gehiegi nabari urdail husdunetan.  
Denboren lorrindua.  
Herririk makaleenetan,  
gurasoen ere goseari hozka dihardute  
ebatsi zizkioten lurretan.  
Egoera tristea guzientzat.

Baina, begira daude, begira,  
profeta berriak,  
gogoz piztuz  
edonongo herriak.  
Mezuz eskainiz  
iratzarkuntzak,  
laster zaurietatik sortuko diren  
bizibide berrikuntzak.

Geroari begira,  
susmatu eta miretsi.  
Etorkizunik ez etsi,  
elkartasuna iritsi,  
libertatezko zori hobea  
badela sinetsi.

Guzion gaurko beharra  
anaitasunez indarra,  
denok batean piztu dezagun  
itxaropen garra.

Behartutako etorkizunik ezin dut onartu.  
Zure mintzoa nire mintzo egingo dut,  
anaitasun mintzoa,  
jauntxoen ikaragarri.  
Eta, oihu! Hiletsirik dagoen herrialdetik.  
Hazi mingotsak, espero dudanez,  
bihar hobeago bat  
loratuko duten lurrean.

Segi zure zuzmurra, ahaztutzero utzi gabe.  
Zurumurrus beti uztarpeturik dagoen gizonari:  
Ez nago lo, ez dut loak hartzerik,  
ez dut behar...  
Hiletsirik dagoen herritik  
berrituko dut zure oihartzuna,  
hiletsian biziz dagoen herri hau  
gar makal batetik  
ernetzen hasiko dela.

Guk gure Euskal Herri,  
arrazoirik aunitz dugu  
guti izanarren.